

ESKORIATZAKO UDALA

IRAGARKIA

2022ko irailaren 27ko Alkate erabakiz, deialdia egin da " Landa gunetako argiteria sistemarako 2022ko ekitaldiko diru laguntzak" irekitzea, eta, era berean, 1000,00€-ko gastua onartu da indarrean dagoen aurrekontuko aurrekontu aplikazioaren kargura.

Eskoriatza, 2022ko urriaren 11. ALKATEA,

ERANSKINA:

OINARRIAK

Landa gunetako argiteria sistemarako dirulaguntzak emateko oinarriak.

JUSTIFIKAZIOA

Eskoriatzako Udalak, landa gunetako bizi kalitatea hobetzeko martxan jarri nahi duen programaren barruan, hainbat jarduera aurreikusten ditu landa gunetako gune nagusitik isolatuta dauden eraikinen kanpoaldean argiak jartzeko.

Helburu hori lortzeko, Udalak eraikin horietako fatxadan edo horien inguruan argi puntu bat jartzeko beharrezko obrak egingo eta finantzatuko ditu.

Hala ere, arrazoi tekniko eta ekonomikoengatik, argi puntu horien elikadura eraikinaren beraren zerbitzu orokorretatik desbideratuta egitea gomendatzen da; ez hargune independente batetik, argiteri publikoko saretik eginez gero egin beharko litzatekeen bezala. Argiteri publikoko sarea ez da iristen puntu horietaraino, eta horregatik, hori kanalizatzea oso garestia da.



Horrek ahalegin ekonomikoa eskatzen die auzotarrei, kanpoaldea argizatzeko jarritako argi puntuek kontsumitutako energia finantzatzeko oinarri hauetan aurreikusitako laguntzekin konpentsatzea nahi dena.

1. - Helburua.

Oinarri hauen helburua da landa auzoetako gune nagusietatik isolatuta egon eta kanpoaldean argiteria publikoa ez duten eraikinen kanpoaldean jarritako argi puntuen energia kontsumoa finantzatzen laguntzeko dirulaguntzak ebaluazio bakoiztu erregimenean emateko prozedura arautzea. Laguntzak ondorengo helburuak bete beharko dituzte:

- Eraikinaren sarrera nagusia argitzea.
- Eraikina seinaleztatzea.

Ondorengo arauak jarraituko dira dirulaguntzak emateko:

- Dirulaguntzak borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira.
- Ezingo dira aintzat hartu aurrekari bezala.
- Ezingo da eskatu dirulaguntza handitzerik edo berraztertzerik.

2.- Organo eskuduna.

Oinarri hauek onartzeko organo eskuduna Alkatea da (Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorraren 6. artikuluan aurreikusitakoaren arabera).

3. Araudi aplikagarria.

Dirulaguntza hauek eta onuradunaren eta erakunde emailearen arteko harreman juridikoa oinarri hauek eta dirulaguntzak ematerakoan indarrean dauden gainerako arauak arautuko dituzte.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko guztietarako honako hauek aplikatuko dira:

- Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra.
- 30/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (Estatuko Boletín Ofiziala: 2003-11-18) eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege dekretuz onartutako Dirulaguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra.



- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Araudi honetan jaso ez diren alderdi guztietan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta indarrean dauden gainerako legeak aplikatuko dira.

4. Onuradunak.

Oinarri hauetan jasotako dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte laguntzearako deialdiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen egoitza fiskala Eskoriatzan duten edo Eskoriatzan erroldatutako pertsona fisiko edo juridikoek, betiere, landa gunean jabetzan baldin badute dirulaguntzaren helburu den eraikinen bat eta eraikinak honako erabileretakoren bat baldin badu:

- Egoitza erabilera.
- Erabilera orokorra, hala nola, ermitak, auzo-lokalak...

Higiezin guztiak dagokion katastroan alta emanda egon beharko dira.

5.- Dirulaguntzak jaso ditzaketen jarduerak.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak deialdia egiten den urteko kontsumoarenak izan beharko dira, hain zuzen ere, ondorengo baldintza guztiak eta bakoitza betetzen dituzten argi puntuenak:

- Udalak jarritakoak edo baimendutakoak izatea.
- Katastroan alta emanda eta auzoko gune nagusitik isolatuta dauden egoitza-eraikinetako sarrera edo erabilera orokorreko eraikinak (ermitak, auzo-lokalak edo antzerakoak) argizatzea.
- Kanpoaldean argiteria publikorik ez izatea.
- Argi puntua pizteko sistemak funtzionatzea.

Ezarritako baldintzak ez badira betetzen, arrazoia edozein delarik ere, dirulaguntza itzultzea eska dezake Udalak.

6.- Erregimena.



Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, deialdi honetako laguntzak banakako ebaluazio erregimenean emango dira, argiteri publikoko sarea iristen ez den eta hori kanalizatzea oso garestia litzatekeen landa guneeetan argiteria bermatu gura duten laguntza hauek izaera berezia baitute.

Dirulaguntzetarako deialdia egitea Alkate-Udalburuari dagokio, eta berak hartutako erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

7.- Finantziak.

Aurrekontu-esleipena 1000,00 €-koa izango da, eta honako aurrekontu-aplikazioaren kargura finantzatuko da: 0100.480.165.00.01.

Eman beharreko laguntzen zenbateko osoa ez da adierazitako kontsignazioa baino handiagoa izango.

8.- Dirulaguntzen zenbatekoa.

Dirulaguntzaren zenbatekoa deialdian finkatuko da. Zenbateko finkoa izango da urteko eta argi puntuko.

9. Eskerak aurkezteko epea eta lekua. Indarraldia.

Eskerak sinatutako eskaera-orri bidez egin beharko dira, eta udaletxean eta webgunean eskura dauden eskaera ereduari egokitu beharko dira.

Eskerak asteleheneetik ostiralera, 8:00etik 14:30era, aurkeztu ahal izango dira Udal Erregistro Orokorrean edo Eskoriatzako Udalaren egoitza elektronikoan, www.eskoriatza.eus helbidean, aurrerago esango den dokumentazioarekin batera.

Eskerak aurkezteko epea dirulaguntzetarako deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egun baliodunean hasiko da.

Eskerak dirulaguntza indarrean dagoen edozein momentutan egin ahal izango dira deialdiaren urteko azaroaren 30a baino lehen.

Eskerak aurrekontu kontsignazioa dagoen bitartean erabakiko dira.



10. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria.

Eskaerak ez baditu betetzen deialdian jasotako baldintzak, horiek zuzentzeko eskatuko zaio eskatzaileari, eta horretarako, gehienez ere hamar egun balioduneko epe luzaezina izango du. Era berean, ohartaraziko zaio eskatutakoa beteko ez balu eskaerari uko egintzat joko dela Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legeko 71. artikuluan aurreikusitako moduan eman beharko den erabakia hartu ondoren.

Eskaera egiteak Eskoriatzako Udalari egoki izan daitezkeen jarduerak egiteko baimena ematea dakar. Jarduera horiek honakoak egiaztatzeko egingo dira: eskatzaileak emandako informazioa, eskatutako baldintzak betetzen diren eta dirulaguntza emanda erakunde onuradunak hartutako betebeharrak betetzen diren.

11.- Agiriak.

Eskaerarekin batera honako agiriak aurkeztu beharko dira:

1. I. Eranskina bezala beteta. (Online tramitazioa egiten dutenek, eranskin hau gehitu beharko dute eskaeran.)
2. Helburu bererako jasotako edo eskatutako dirulaguntzei buruzko aitorten sinatua.
3. Eskoriatzako Udalak zuzenean eskatuko dizkie beste administrazio batzuei eskatzaileak zerga- betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete dituela egiaztatzeko behar diren datuak. Eskatzailea eskaera orrian horren aurka agertzen bada, zerga- betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

12. Eskaerak tramitatzeko ardura duen administrazio unitatea.

Eskaerak Hirigintza administrazio unitateak tramitatuko ditu.

13.- Eskaerak ebaluatzeko irizpideak.

Helburua izanik Udalak berak, zailtasun teknikoarengatik eta kostu ekonomikoarengatik, zuzenean jarri ezin duen argiteria partikularrek beraiek jartzeagatik sortutako gastuak finantzatzeko diruz laguntzea, norgehiagoka prozedura batean ez dago aukerarik alderatutako baloraziorik egiteko aurkeztutako eskaeren artean, eta, eskatutako baldintzen pilaketa eta aurrekontu



kontsignazioarena ez bada, beraien artean ezin da beste harreman elementurik ezarri.

14. Prozedura eta erabakia.

Eskaera aurkeztuta, Obra eta Zerbitzuetako arloko teknikariak aztertuko du; eta dokumenturen bat falta izanez gero, 10 eguneko epea emango da hori aurkezteko.

Epe hori amaituta eskatutako dokumentazioa aurkeztu gabe, dirulaguntza eskaerari uko egiten zaiola ulertuko da.

Azkenik, eta diruz lagungarri den jarduera bati dagokion gastua dela esateko teknikariak egindako txostena jaso ondoren, Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen batzorde informatzaileak dirulaguntza emateko proposamena egingo dio Alkateari, honek dagokion erabakia har dezan.

Erabakia gehienez ere hiru hilabeteko epean hartuko da Udal Erregistroan eskaerari emandako sarrera egunetik kontatzen hasita.

Epe hori amaituta, eta Udalak ez badu inolako erabakirik hartu eskaeraren baten gainean, eskaera ez dela onartu ulertu beharko da.

Erabaki proposamena egin aurretik beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatu ahal izango du Udalak batzorde informatzailearen bidez.

15. Dirulaguntza ordaintzeko modua.

Dirulaguntza ordainketa bakarrean emango da, hilabeteko epean Alkateak dirulaguntza ematea onartzen duenetik kontatzen hasita.

16. Dirulaguntzak pilotzea.

Udalak emandako dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako emandako beste edozeinekin.

Hala ere, dirulaguntzaren kopurua ezin izango da izan, bera bakarrik edo beste laguntza batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.



17.- Dirulaguntzak argitaratzea.

Dirulaguntza, banaka hartuta, 3.000 eurotik gorakoa baldin bada, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira onuradunaren izena eta emandako dirulaguntza.

Ez da dirulaguntzen daturik argitaratuko, dirulaguntzaren xedeagatik, pertsona onuradunaren datuak argitaratzeak pertsona fisikoen ohorea eta intimitate pertsonal zein familiarra ez errespetatzea edo ez babestea ekar dezakeenean.

18. Dirulaguntza bertan behera uztea edo baliogabetzea.

Dirulaguntza berraztertzeke eta, hala bada, bertan behera uzteko arrazoa izango da dirulaguntza jasotzea eskatutako baldintzak bete gabe.

19.- Oinarriak interpretatzea.

Oinarri hauek interpretatzerakoan, aplikatzerakoan edo horien ondorioetarako zalantzarik izanez gero, Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen batzorde informatzaileak erabakiko du.

20.- Garapena eta exekuzioa.

Oinarri hauek exekutatu ahal izateko behar beste erabaki hartzeko ahalmena ematen zaio Alkate-Udalburuari.